Zk-3346

AGINDUA, 2001eko apirilaren 24koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, 150 kN.m baino gutxiagoko momentu eragileko garabi autohedagarrien instalazioei buruzkoa.

Aparailu Jasotzaileen Erregelamenduaren ITC-MIE AEM 2 Jarraibide Tekniko Osagarria onartu zuen Obretarako dorre-garabiei buruzko 1988ko ekainaren 28ko Aginduaren (1988-07-07ko EAO eta 1988-10-05eko EAO) 7. puntuak aurreikusten du Jarraibide Tekniko Osagarri horretan sartuta dauden aparailuak instalatu ahal izateko, ezinbestekoa dela proiektu bat aurkeztea Administrazio Publikoko organo eskumendunari. Bestalde, proiektua teknikari gaitu batek izenpetuta egon beharko du eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsita. Horrez gain, Aginduak dio Industria Liberalizaioari buruzko irailaren 26ko 2135/1980 Dekretuan eta Dekretu hori garatzen duen 1980ko abenduaren 19ko Aginduan ezarritako prozedura kontuan hartuta izapidetuko dela proiektua.

Euskal Autonomia Erkidegoan honako Agindu honek ezartzen du zein den aurreko paragrafoan aipatutako prozedura: instalazio industrialak martxan jartzeko prozedura sinplifikatzeko, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko abenduaren 26ko Agindua (2001-01-24ko EHAA). Agindu horren xedea da bi arau horietan ezarritako izapidetze-prozedura aldatzea, eta horrela, jarraibide teknikoetan ezarritakoa kontuan hartuta erabaki proiektua edo dokumentazio teknikoa derrigorrean aurkeztu behar den ala ez.

Gaur egun prestazio txikiko hainbat garabi autohedagarri daude merkatuan (150 kN.m baino gutxiagoko iraulketako momentu eragilea dutenak), eta erraz muntatu eta desmuntatzeko diseinatuta daude; izan ere, horretarako behar diren elementuez hornituta daude. Gainera, garabi horiek oso denbora laburrean egon ohi dira leku berean.

Hori dela eta, era horretako instalazioak zerbitzuan jartzeko izapideak ere erraz eta azkar egin beharra dago. Gainera, horrela eginez gero, mota horretako garabien titularrek eta garabiak zerbitzuan jartzeko prozesuan zehar erantzukizunen bat duten agenteek egin dituzten eskaerei ere irtenbidea emango zaie. Edozelan ere, bermatu egin beharko da behar bezala beteko direla erregelamendu bidez ezarritako segurtasun baldintza guztiak.

Beraz, era horretako instalazioei eskatzen zaien Proiektu Teknikoa aldatu beharra egiaztatu da, eta ikusi da nahikoa dela teknikari gaitu batek instalazioa egokia dela egiaztatzea. Instalazioa egokia dela ziurtatzeaz gain, diseinuari buruzko oinarrizko datuak eta beharrezkoak diren planoak aurkeztu beharko dira.

Azkenik, gogoan hartu behar dugu Industria Kalitateari eta Segurtasunari buruzko azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoa, De-

N°-3346

ORDEN de 24 de abril de 2001, del Consejero de Industria Comercio y Turismo, en relación con las instalaciones de grúas autodesplegables cuyo par no supere los 150 kN.m.

La Instrucción Técnica Complementaria ITC-MIE AEM 2 del Reglamento de Aparatos Elevadores, aprobada por Orden de 28 de junio de 1988 (BOE 07.07.88 y BOE 05.10.88), referente a Grúas Torre desmontables para obras prevé, en su punto 7, que la instalación de los aparatos incluidos en esta ITC requiere la presentación de un proyecto ante el órgano competente de la Administración Pública, suscrito por técnico competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente, remitiéndose en cuanto a su tramitación a lo establecido en el Real Decreto 2135/1980, de 26 de septiembre, sobre liberalización industrial y Orden de 19 de diciembre de 1980 que lo desarrolla.

El procedimiento de tramitación al que se refiere el párrafo anterior, en el ámbito de esta Comunidad Autónoma, está regulado en la Orden de 26 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, de simplificación del procedimiento para la puesta en funcionamiento de instalaciones industriales (BOPV 24.01.01), Orden que modifica el procedimiento de tramitación previsto en las referidas normas, haciendo depender la necesidad o no de presentar proyecto o documentación técnica, de lo establecido en la correspondiente reglamentación Técnica.

En la actualidad en el mercado, existen grúas autodesplegables de pequeñas prestaciones (con pares de vuelco inferiores a 150 kN.m) que están diseñadas para poder montarse y desmontarse con facilidad, al disponer de elementos propios que facilitan dichas operaciones, y que generalmente su permanencia, en una ubicación determinada, suele ser de corta duración.

Estas circunstancias obligan a que, el procedimiento de tramitación para la puesta en servicio de este tipo de instalaciones, se efectúe con las mismas condiciones de simplicidad y agilidad, adaptándose a las demandas de los titulares de estas grúas y del resto de agentes con responsabilidades en el proceso de puesta en servicio de las mismas, adaptación que, en cualquier caso, deberá garantizar el cumplimiento de las condiciones de seguridad reglamentariamente establecidas.

En consecuencia, se ha comprobado la necesidad de modificar la exigencia de Proyecto Técnico para este tipo de instalaciones, considerándose como suficiente que un técnico titulado competente certifique la idoneidad de la instalación, aportando los datos básicos de diseño junto con los planos necesarios.

Por último debemos tener en cuenta que, en el artículo 8 del Decreto 275/1986, de 25 de noviembre, sobre Calidad y Seguridad Industrial, en relación con

kretu beraren azken xedapenetatik lehenengoarekin bat: Industria Sailak arau bat derrigorrezkoa dela edo ezinbestekoa dela agindu dezakeela, interes publikoak babesteko ezinbestekoa dela ikusten badu, eta interes horiek babesteko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoarena bada.

Ondorioz, azaroaren 25eko 275/1986 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoak ezarritakoarekin bat, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua eta ezarpen-eremua.

– Agindu honen helburua da obretarako dorre-garabi desmuntagarri mota jakin batzuek aurkeztu behar dituzten frogagiriak arautzea, hartara, erregelamendu bidez aurreikusita dauden segurtasun baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatzeko.

– Agindu honetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan ezarriko da eta 150 kN.m (kilonewton metroko) baino gutxiagoko iraulketako momentu eragilea duten obretako dorre-garabi audesmuntagarria eta autohedagarriak instalatu ahal izateko erabiliko da.

2. artikulua.– Dorre-garabi autohedagarrien instalazio-ziurtagiria.

1.– Era horretako garabientzat ezarrita dauden erregelamenduzko segurtasun baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, ez da aurkeztu behar izango honako aginduaren 7. puntuan ezarritako proiektu teknikoa: Aparailu Jasotzaileen Erregelamenduaren ITC-MIE AEM 2 Jarraibide Tekniko Osagarria onartu zuen Obretarako dorre-garabi desmuntagarriei buruzko 1988ko ekainaren 28ko Agindua (1988-07-07ko EAO eta 1988-10-05eko EAO).

2.– Era horretako instalazioak zerbitzuan jartzeko, nahikoa izango da ziurtagiri bat aurkeztea. Ziurtagiriaren eredua eta edukia Agindu honetako I. eranskinean dago jasota, eta Agindu honen bidez onartzen da.

3.– Teknikari gaitu batek izenpetu beharko du eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi beharko du ziurtagiria. Ziurtagirian honako hauek jaso beharko dira gutxienez:

– Garabiaren ezaugarriak.

– Behar den zimentazioaren ezaugarriak eta deskribapena.

– Instalazioak erregelamenduzko baldintza teknikoak betetzen dituela adieraztea.

3. artikulua.– Agiri osagarriak:

Ziurtagiriarekin batera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

– Garabiaren fitxa teknikoa.

– Fabrikazio-ziurtagiria.

– Kokapen planoa.

su Disposición Final Primera, se prevé la posibilidad de que el Departamento de Industria pueda declarar la obligatoriedad de una norma o su exigibilidad cuando las razones que justifican su necesidad se integran en la protección de intereses públicos cuya competencia corresponde a esta Comunidad.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la referida Disposición Final Primera del Decreto 275/1986, de 25 de noviembre,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto y campo de aplicación.

– La presente Orden tiene por objeto regular, la documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones técnicas de seguridad reglamentariamente previstas, aplicables a determinado tipo de grúas torre desmontables para obra.

– Las disposiciones establecidas en la presente Orden se aplicarán, en el ámbito competencial de esta Comunidad Autónoma, únicamente a la instalación de grúas torre desmontables para obras y autodesplegables, cuyo par de vuelco no supere los 150 kN.m. (Kilonewton por metro).

Artículo 2.– Certificado de instalación de Grúas Torre Autodesplegables.

1.– Para la acreditación de las condiciones de seguridad reglamentarias establecidas para este tipo de grúas no será necesario la presentación de proyecto de instalación al que se refiere el punto 7 de la Instrucción Técnica Complementaria ITC-MIE AEM 2 del Reglamento de Aparatos Elevadores aprobada por Orden de 28 de junio de 1988 (BOE 07.07.88 y BOE 05.10.88), referente a Grúas Torre desmontables para obras.

2.– Para la puesta en servicio de este tipo de instalaciones será suficiente con la presentación de un Certificado cuyo formato y contenido se aprueba como Anexo a la presente Orden.

3.– El referido Certificado deberá estar suscrito por técnico titulado competente y visado por el Colegio Oficial correspondiente y su contenido mínimo será el siguiente:

– Características de la grúa

– Características y descripción de la cimentación necesaria

– Indicación de que la instalación cumple las condiciones técnicas reglamentarias.

Artículo 3.– Documentación Complementaria.

Junto con la referida certificación se deberá acompañar la siguiente documentación:

– Ficha técnica de la grúa.

– Certificado de fabricación.

– Planos de ubicación y emplazamiento.

– Garabiak gidatzeko baimena.

– Sei hilabeteroko egiaztapenaren gaineko kontratua edo konpromisoa.

– Baimendutako kontrol-erakunde (BKE) baten ikuskapen-akta, baldin eta beharrezkoa bada.

– Interesgarritzat jotzen den beste edozein agiri.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Industria segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzari ahalmena ematen zaio Agindu honetan aurreikusitakoa gauzatu eta ezartzeko beharrezkotzat jotzen diren jarraibide guztiak eman ditzan, eta, bereziki, eranskinaren edukia premia teknologiko berrietara egokitzeko beharrezkotzat jotzen diren jarraibideak eman ditzan.

Bigarrena.– Xedapen hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 24a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

– Carnet de gruista.

– Contrato o compromiso de verificación semestral.

– En su caso, Acta de inspección de una O.C.A.

– Otros documentos que se consideren de interés.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta a la Dirección competente en materia de seguridad industrial para dictar cuantas instrucciones sean necesarias para la ejecución y aplicación de lo previsto en la presente Orden, y en particular, para adecuar el contenido del Anexo a las nuevas necesidades tecnológicas.

Segunda.– La presente disposición entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de abril de 2001.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

ERANSKINA

DORRE-GARABI AUTOHEDAGARRI BATEN INSTALAZIO-ZIURTAGIRIA

(150 kN.m baino gutxiagoko momentu eragileko garabientzako balio du)

ERAIKUNTZA ENPRESA: .....

OBRA ZUZENDARITZA: .....

INSTALATZAILEA: .....

GARABIAREN EZAUGARRIAK :

<table>
<tr><td>MARKA</td><td>MODELOA</td><td>ZENBAKIA</td><td>FABRIKAZIO URTEA</td></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td colspan="2">LUMAREN LUZERA</td><td>LASTA</td><td>MUNTAIAREN ALTUERAK</td><td>GORAPEN ABIADURA</td></tr>
<tr><td>Hasierakoa: m
Bukaerakoa: m</td><td>Balioko helmena : m
Balioko helmena: m</td><td>MOTA:
Hasierakoa: Kg
Bukaerakoa Kg</td><td>Gehienez: m
Autoegonkorra: m</td><td>1.a m/min
2.a m/min
3.a m/min</td></tr>
<tr><td>KABLEAK</td><td colspan="2">EZAUGARRI ELEKTRIKOAK</td><td colspan="2">LURZORUAREN ERRESISTENTZIA</td></tr>
<tr><td>Gorapena: ∅ mm
Orga: ∅ mm</td><td>Gehienezko potentzia: Kva
Tentsioa: V
Sekzioa: mm²</td><td>Pika: m luzera ∅ mm
Lurrerako kablea: mm²
Diferentziala: mA</td><td colspan="2">Erresistentzia: Kg/cm²
Zola: x x m-koa</td></tr>
<tr><td>KARGAK</td><td>HELMENAK</td><td colspan="3">SEGURTASUN GAILUAK</td></tr>
<tr><td>Tm</td><td>m</td><td colspan="3">ˇ Puntako karga edo momentu eragilearen mugatzailea
ˇ Gorapen mugatzailea
ˇ Gehienezko karga mugatzailea
ˇ Helmen mugatzailea
ˇ Biratze mugatzailea
ˇ Haize-orratz eran jartzeko gailua</td></tr>
<tr><td>Tm</td><td>m</td><td colspan="3"></td></tr>
<tr><td>Tm</td><td>m</td><td colspan="3"></td></tr>
</table>

.....injineru jaun-andreak, ... (e)ko ..... Injineru Elkargo Ofizialeko honako elkargo-kide zenbakia duenak .....

EGIAZTATZEN DU:

5. Instalazioak betetzen duela Aparailu Jasotzaileen eta Mantentzearen Erregelamenduaren ITC-MIE AEM 2 Jarraibide Tekniko Osagarria (1988-06-28ko Agindua, 1988-07-07ko EAO).
6. Lumaren eta zintzilikatutako kargaren ekortze azalerak UNE 58-101-92 2. atala Arauak ezarritako segurtasun tarte horizontala eta bertikala izango dituela (bereziki linea elektrikoak), eta garabiaren operadorea .....jaun-andrea izango dela.
7. Baimendutako kontrol organismo batek egin duela garabiaren aldizkako azterketa ofiziala (halakorik behar bada). Azterketaren data: ..... .
8. Obrako arduradunak badakiela nola funtzionatzen duen garabiak. .

....., 2001eko .....aren .....(a).

Elkargo Ofizialaren ikus-onetsia (Injineruaren sinadura)

BESTELAKO AGIRIAK:

☐ Garabiaren fitxa teknikoa..
☐ Fabrikazio ziurtagiria.
☐ Kokapen planoak.
☐ Garabiak gidatzeko baimena.
☐ Sei hilabeteroko egiaztapenaren gaineko kontratua edo egiaztapena.
☐ Baimendutako kontrol-erakunde (BKE) baten ikuskapen-akta, baldin eta beharrezkoa bada.
☐ Beste batzuk:

ANEXO

CERTIFICADO DE INSTALACIÓN DE UNA GRÚA-TORRE AUTODESPLEGABLE

(Válido para grúas cuyo par no supere los 150 KN.m)

EMPRESA CONSTRUCTORA:.....

DIRECCION OBRA:.....

INSTALADOR: .....

CARACTERÍSTICAS DE LA GRÚA :

MARCA	*MODELO*	*NÚMERO*	*AÑO FABRICACIÓN*

LONGITUD DE LA PLUMA		*LASTRE*	*ALTURAS MONTAJE*	*VELOCIDAD ELEVACIÓN*
Inicial: m *Final: m*	*Alcance útil: m* *Alcance útil: m*	*TIPO:* *Inicial: Kg* *Final. Kg*	*Máxima: m* *Autoestable: m*	*1.ª m/min* *2.ª m/min* *3.ª m/min*

CABLES	*CARÁCTERÍSTICAS ELÉCTRICAS*		*RESISTENCIA TERRENO*
Elevación : ∅ mm *Carro: ∅ mm*	*Potencia máx: Kva* *Tensión: V* *Sección: mm²*	*Pica: m longitud ∅ mm* *Cable Tierra: mm²* *Diferencial: mA*	*Resistencia: Kg/cm²* *Solera de: x x m*

CARGAS	*ALCANCES*	*DISPOSITIVOS DE SEGURIDAD*
Tm	*m*	ˇ *Limitador de carga en punta o par* ˇ *Limitador de elevación* ˇ *Limitador de carga máxima* ˇ *Limitador de alcance* ˇ *Limitador de giro* ˇ *Dispositivo de puesta en veleta*
Tm	*m*	
Tm	*m*	

D..... Ingeniero, Colegiado n.º..... del Colegio Oficial de Ingenieros ..... de.....

CERTIFICA:

1. *Que la instalación cumple con la Instrucción Técnica Complementaria ITC MIE AEM-2 del Reglamento de Aparatos de Elevación y Manutención (Orden de 28-6-1988, B.O.E. 7-7-1988).*
2. *Que en el área de barrido de la pluma y la carga suspendida, tendrá un espacio de seguridad horizontal y vertical, según lo establecido en la Norma UNE 58-101-92 Parte 2, en especial líneas eléctricas y que el Operador de la grúa es D.....*
3. *Que se ha realizado la inspección periódica oficial de la grúa por un organismo de Control autorizado (en su caso), con fecha .....*
4. *Que el responsable de la obra conoce las instrucciones de utilización.*

....., a ..... de ..... de .....

Visado del Colegio Oficial *(Firma del Ingeniero)*

OTRA DOCUMENTACION:

☐ *Ficha técnica de la grúa.*
☐ *Certificado de fabricación.*
☐ *Planos de ubicación y emplazamiento.*
☐ *Carnet de gruista.*
☐ *Contrato o compromiso de verificación semestral.*
☐ *Acta de inspección de una O.C.A. (en su caso).*
☐ *Otros:*